

Presoen eskubideen aldeko manifestazio nazionala Bilbon

Presoen eskubideen aldeko manifestazio nazional batera deitu du Kalera Kalerak, apirilaren 21erako, Bilbon.

✘ Euskal presoen gaia berriro agenda politikora ekartzeko garaia dela nabarmendu du Kalera Kalerak. LAB partaide duen ezker abertzaleko dinamikak agerraldi bat egin du Iruñean, etorriko diren mobilizazioen berri emateko: apirilaren 17an, Kalera Kalerak ekimen politiko bat egingo du Galdakaon, Preso Politikoen Nazioarteko Egunean; apirilaren 18, 19 eta 20an, ekimenak egingo ditu herriz herri; eta apirilaren 21ean, manifestazio nazional batera deitu du, Bilbon egingo dena (17:30ean, La Casillatik). Gaurko agerraldian, LABeko Nafarroako bokalia Imanol Karrerak hartu du parte, besteren artean.

Hau da Kalera Kalera dinamikak egin duen adierazpena:

Deialdi honen bidez KALERA KALERA dinamikak euskal preso politikoen eta haien eskubideen aldeko mobilizazioak iragarri nahi ditu apirilerako. Hil horretako apirilaren 17an, hau da, preso politikoen nazioarteko egunean, hasiko dira mobilizazio horiek eta apirilaren 21ean amaituko dira, Bilbon egingo den manifestazio nazional baten bidez (17:30ean abiatuko da La Casillatik).

Iragartzen ari garen manifestazio hau mugarri izan diren bi manifestazioren ostean dator: batetik, abenduaren 9an 'Orain presoak' lelopean Parisen 11.000 lagun bildu zituen manifestazio arrakastatsuen ondoren; eta bestetik, urtarrilaren 13an Sare plataformak deitutako 'Prest gaude. Giza eskubideak, konponbidea, bakea' manifestazioa jendetsuaren ondoren (95.000 lagun bildu zituen Bilbon).

Iritsi da ezker abertzaleak euskal presoen izaera politikoa aldarrikatzeko momentua. Iritsi da presoak kaleratzeko aldarria berriro ere euskal agendara ekartzeko momentua. Presoak kalera atera behar ditugu, eta hori lortu bitartean ez dugu ahaztu behar presoek premiazko hainbat gai dituztela, konpondu beharrekoak eta lehentasunezkoak. Horiek berehalako erantzuna behar dute, eta hainbat eragile sozial, sindikal, politiko eta instituzional, modu batera edo bestera, horren jakitun dira.

Presoen gaian, oraintsu zehaztu da elkarrizketa bide bat Ipar Euskal Herriko ordezkariak anitz baten eta Hélène Davo buru duen Frantziako Justizia Ministerioko ordezkariaren artean. Horren ondorioz, euskal delegazioari baimendu zioten EPPKrekin elkartzea, zazpi euskal preso politikori DPS erregimena kendu zioten (Espainiako estatuko kartzeletan FIES erregimenaren baliokidea), eta presoak Mont-de-Marsan espetxera hurbiltzeko planteamenduan aurrerapenak egin ziren. Jadanik preso batzuk hurbildu dituzte Mont-de-Marsan espetxera. Horrenbestez, herri delegazio horrek duen garrantzia nabarmendu nahi dugu.

Jakin badakigu hurbiltzetaren prozesua mailakako prozesua izango dela eta auzi guztiei ez zaiela epe laburrean aurre egingo, baina egoera guztiek (emakumeak, zigor luzeak, estradizio arriskua dutenek...) izango dute erantzuna.

Hego Euskal Herrian urrats mantso baina irmoak egiten ari dira gatazkaren ondorioei konponbideak bilatzeko. Premiazko gaietan adostasun zabala egon badago eragile politiko, sozial eta instituzionalen artean, hau da, sakabanaketarekin amaitzeko eta preso gaixoak askatzeko. Horren froga garbienak dira Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan lortutako akordioak.

Beste aldetik, Ipar Euskal Herriko ordezkariak zabalak eta Hegoaldeko Foro Sozial Iraunkorrek harremana hasia dute EPPKrekin, eta lanean ari dira euskal preso politikoen ikuspuntua lantzeko gainerako eragile sozial, politiko, sindikal eta instituzionalekin eta haiekin batera adostasunak lortu eta gauzatzeko.

Lege arrunta erabiltzeko konpromisoa bere egin zuela irakur daiteke EPPK-k pasa den udan publiko egindako eztabaidaren ondorioetan. Espetxeen barruan hasi dira bide hori jorratzen. Ibilbide hori eraginkorra izateko lehenen gradua bertan behera geratu behar da, horixe baita lege arruntera igarotzeko tapoi nagusia. Lehen gradua ganditzen ez bada, ezin da beste lege-eskaerarik egin.

Momentuz euskal preso politikoen kopuru handiak errekurritu du jadanik lehen gradua. Gradu horrek errekurritzeko epe zehatzak ditu, eta epe horiek zein helegitearen prozedura espetxearen kompetentzia dira. Hiru hilabetero eta sei hilabetero (erregimen klasifikazioaren arabera) aukera ematen zaie presoei gradua

errekurritzeko. Datozen asteetan, preso bakoitzari errekurritzeko epea zabaldu ahala, gehiago gehituko dira lehen gradua errekurritzera.

Hemendik aurrera lehen gradua gainditzeko eskaera jarriko da konpobidearen ildoan, lege arrunta erabiltzeko ezinbesteko premisa baita. Izan ere, espetxe administrazioak euskal presoak modu sistematiko, orokor eta jarraituan sailkatzen ditu lehen graduan. Neurri horrek kartzeletako legedian urratsak ematea oztopatzen du, tratu indibidualizatua mugatzen du eta kartzelako hainbat eskubide izatea ukatzen du.

Testinguru honetan eta azaldutako kriterioak bultzatzeko eta indartzeko, KALERA KALERA dinamikak honako mobilizazio egutegia aurkezten du:

- Apirilak 17, asteartea. Preso politikoen nazioarteko eguna. Galdakaon ekimen politikoa egingo da eta, presoena izaera politikoa aldarrikatzeaz batera, presoena gaian dauden lehentasunak azpimarratuko dira (hurbilketa, preso gaixoen kaleratzea, 70 urtetik gorako presoena kaleratzea, lehenengo gradutik ateratzea).
- Apirilak 18, 19 eta 20. Herri-ekimenak. Herrietan presoena aldeko ekimenak eta mobilizazioak burutuko dira.
- Apirilak 21 (larunbata). BADA GARAIA!! PRESOAK KALERA konponbidea, bakea, askatasuna lelopean, Manifestazio Nazionala burutuko da. Bilboko Casillatik, 17:30ean.